

FUNTSEZKO JARDUERAK

Jada gauza asko azaldu arren, gure enpresa egi bihur dadin atal asko finkatu behar ditugu oraindik. Oraingo honetan, gure proiektua aurrera eramateko funtsezkoak izango diren jarduerak azalduko ditugu eta modu honetara, egin beharrekoak argi izango ditugu. Jarduera horiek denak esanguratsuak diren arren, garrantziaren arabera sailkatu ditugu.

Hasteko, egin beharreko funtsezko jarduera bat, beharbada esanguratsuen, janaria egitea da. Janari ezean, proiektuak ez du zentzurik izango. Sukaldari bat izango dugu ardura horren jabe, inork ez baitu sukaldatzen horri buruz jakintza duen pertsona batek baino hobeto. Kalitatezko janaria jatea asko eskertzen da eta hori da hain zuzen guk geure bezeroei eskeiniko dieguna. Jarduera hau igandean egingo da, astehelenean dena prest izateko.



Horren arira, elikagaiak lortzearen jarduera azpimarratu beharra dago. Hauek nolakoak diren kontuan izanda, modu batera edo bestera lortuko ditugu. Urretxu eta Zumarragakoak diren produktuen saltzaile gehienekin nahiko harreman estua dugu jada, beraz, egoeraren arabera, haiengana joango gara erostera eta bestela, enkargatu egingo ditugu. Gainerako produktuak aldiz, supermerkatuetan lortuko ditugu eta bertara joan beharko gara janaria lortzera. Gu geu arduratuko gara jarduera horretaz.

Bestalde, aurretik aipatutako gure bezeroak jartzen dituzten "gustuak" aztertzea jarriko geuke. Hau ere esanguratsua da tuperrak beren gustura egiteko eta bezeroak gure eskaintzarekin pozik egon daitezen. Lehenengo aldiz harpidetuta, datu haiek han geratuko dira, beraz, ez da beharrezkoa izango harpidedunek behin eta berriro betetzea. Horrek esan nahi du guk behin irakurriko ditugula, eta hortaz baliatuko garela ondorengo tuperrak egitean.

Horrez gain, webgunean plazaratzen duten iritzia eta bidalitako inkestak irakurtzea beste jarduera nagusi bat izango litzateke. Jarduera honek hurrengorako zer hobetu dezakegun jakitea ahalbidetuko digunez, gure proiektua aberastu egingo du. Enpresa bezala, etengabe hobetzeko helburua dugu eta kritikak jasotzeko orduan adi belarri egongo

gara. Seguraski ez gara hobetu beharreko guztiak hobetzeko gai izango, baina arazoa konpontzen ahalegintzea edota arazoaz jabetzea aurrera pauso handi bat izaten ohi da.



Jarraian, aipatu beharra dago tuperrak prestatzeak ere baduela bere garrantzia. Hau funtsezko da, eskaera guztiak ondo irakurri behar ditugu, eta horren arabera, dagokion lana modu egokian egin. Gu geu arduratuko gara tuper hauek bakoitzari dagokizkion elikagaiez betetzeaz eta honen garrantzi maila kontuan izanda, behin eta berriro erreparatuko ditugu ea akatsik dauden behatzeko.

Azkenik, tuperren banaketa dago. Aurretik egindako guztiak ez du ezertarako balioko gure eskaintza dagokion pertsonari entregatzen ez badiogu. Beste atal batean aipatu dugun modura, entrega eguna astelehenetan izango da eta tuper guztiak asteko lehenengo egun hartan iristeaz arduratuko gara. Gainera, kontuz ibili beharko gara konfusiorik ez egon dadin eta dena dagokion helbidera iritsi dadin.